



BAZTANGO UDALA
AYUNTAMIENTO DEL NOBLE VALLE Y UNIVERSIDAD DE BAZTAN

2021eko URTARRILaren 28ko OHIKO OSOKO BILKURA

SESIÓN PLENARIA ORDINARIA DE 28 DE ENERO DE 2021

Baztango Udaletxeko Bilkura Aretoan, 2021eko urtarrilaren 28an, 19:00etan, Baztango Udala Osoko bilkuran bildu da, ohiko bileran; Joseba Otondo Bikondoa alkate-udalburu jauna buru dela, eta zinegotzi hauek etorri dira: Juan Cruz Iriarte Bañez, Maria Josefa Garmendia Urtizbera, Oianko Garde Jaunsaras, Xabier Maia Etxeberria eta Xabier Torres Letona EH-BILDU taldekoak; Maria Isabel Olave Ballarena, Anastasio Nagore Garralda eta Maria Carmen Iribarren Iribarren, NAVARRA SUMA taldekoak; Florentino Goñi Tellechea eta Iñigo Iturralde Eliceche BAZTANGO EZKERRA taldekoak; Joseba Moreno Videgain eta Ruben Ziganda Sanz GEROA BAI taldekoak.

Idazkari lanetan Iulen Urbiola Loyarte jauna aritu da.

Alkatearen aginduz, bilkura hasi da.

1.- 2020/12/24KO OHIKO OSOKO BILKURARI DAGOKION AKTA ONARTU.

2020/12/24ko ohiko osoko bilkurako akta aho batez onartu da.

2.- M^a MARTA OTEGUI BENGOAK ETA MIGUEL ANGEL TROITIÑO BERASATEGUIK SUSTATUTAKO XEHETASUN AZTERLANA. HASIERAKO ONESPENA.

Ikusita M^a Marta Otegui Bengoak eta Miguel Angel Troitiño Berasateguik aurkeztutako xehetasun azterlana, Erratzuko 49. poligonoko 75. lursailari dagokiona, non eraikinak har dezakeen eremua zehaztea proposatzen duen. Kontuan harturik arkitektoaren aldeko txostena eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuak ezarritakoa, Udalbatzak aho batez honakoa erabaki du:

En la Sala de Sesiones del Ayuntamiento del Valle de Baztan, siendo las 19:00 horas del día 28 de enero de 2021, se reúne, en sesión ordinaria el Pleno Municipal, presidido por el alcalde-presidente Joseba Otondo Bikondoa y con la asistencia de los siguientes concejales: Juan Cruz Iriarte Bañez, María Josefa Garmendia Urtizbera, Oianko Garde Jaunsaras, Xabier Maia Etxeberria y Xabier Torres Letona por el grupo EH-BILDU; María Isabel Olave Ballarena, Anastasio Nagore Garralda y María Carmen Iribarren Iribarren por el grupo NAVARRA SUMA; Florentino Goñi Tellechea e Iñigo Iturralde Eliceche por el grupo BAZTANGO EZKERRA; Joseba Moreno Videgain y Rubén Ziganda Sanz por el grupo GEROA BAI.

Actúa como secretario D. Iulen Urbiola Loyarte.

El alcalde da comienzo a la sesión.


1.- APROBACIÓN DE ACTA DE SESIÓN PLENARIA ORDINARIA DE 24/12/2020.

El acta de la sesión ordinaria de 24/12/2020 se ha aprobado por unanimidad.

2.- ESTUDIO DE DETALLE PROMOVIDO POR MARÍA MARTA OTEGUI Y MIKEL TROITIÑO EN ERRATZU APROBACIÓN INICIAL.

Visto el estudio de detalle de la parcela 75 del polígono 49 de Erratzu, presentado por M^a Marta Otegui Bengoa y Miguel Angel Troitiño Berasategui, en el que se propone d modificar las alineaciones que definen la zona ocupable por la edificación.

Teniendo en cuenta el informe favorable del arquitecto municipal y lo establecido en el Decreto Foral Legislativo 1/2017, de 26 de julio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo, el Pleno por unanimidad de los presentes acuerda:



1.- M^a Marta Otegui Bengoak eta Miguel Angel Troitiño Berasateguik, Erratzuko 49. poligonoko 75. lursailean eraikinak har dezakeen eremua zehazteko xehetasun azterlanari **hasierako onespena** ematea.

2.- Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 74. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, espedientea **jendaurrean** egonen da hogeit egunez, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita, aztertu eta bidezko alegazioak aurkez daitezten. Jendaurreko epean ez badu inork alegaziorik aurkezten, agiria behin betikoz onetsiko da, betiere bidezkoa bada.

3.- Nafarroan kaleratutako bi egunkaritan iragarkia **argitaratzea**.

4.- Akordio hau interesdunei **igortzea**, haren berri izan dezaten eta behar diren ondorioetarako, ohartaraziz tramitazio egintza izanik ez dagoela errekurtsioa aurkezterik.

3.- UDALAREN ZERBITZUKO LANGILEENDAKO 2021eko LAN EGUTEGIA ETA EPEAK KONTATZEKO EGUN BALIOGABEEN EGUTEGIA.

Ikusirik 217/2020 Ebazpena, maiatzaren 18koa, Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiektzioaren eta Lanaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan ordaindu bai baina errekupearatu behar ez diren 2021eko jaiegunen egutegi ofiziala ezartzen duena.

Ikusirik 819/2020 Ebazpena, azaroaren 24koa, Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiektzioaren eta Lanaren zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez zehazten baitira ordaindu bai baina errekupearatu behar ez diren 2021eko herriko jaiegunak, Nafarroako Foru Komunitatearen esparrurako.

Ikusirik 98/2020 Foru Dekretua, abenduaren 22koa, zeinaren bidez zehazten baitira epeen zenbaketarako baliogabeak izanen diren egunak, Nafarroako Foru Komunitatean, 2021. urtean.

Ikusirik udaleko ordezkari sindikalek egindako proposamena.

1.- **Aprobar inicialmente** el Estudio de Detalle de la parcela 75 del polígono 49 de Erratzu, presentado por Marta Otegui Bengoa y Miguel Angel Troitiño Berasategui, en el que se propone modificar las alineaciones que definen la zona ocupable por la edificación.

2.- **Abrir un período de exposición pública** de 20 días hábiles desde la publicación del anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Navarra, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 74 del Decreto Foral Legislativo 1/2017, de 26 de julio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley Foral de Ordenación del Territorio y Urbanismo, a fin de que los interesados puedan formular alegaciones que estimen pertinentes. En caso de no producirse alegaciones en el período de información pública el documento será elevado para su aprobación definitiva, si procede.

3.- **Publicar** el anuncio en dos diarios editados en Navarra.

4.- **Notificar** el presente acuerdo a cuantos puedan resultar interesados, para su conocimiento y efectos oportunos, advirtiéndoles que se trata de un acto de trámite que no puede ser recurrido.


3.- CALENDARIO LABORAL DEL AÑO 2021 PARA EL PERSONAL AL SERVICIO DEL AYUNTAMIENTO Y DE DÍAS INHÁBILES PARA EL CÓMPUTO DE PLAZOS.

Vista la Resolución 217/2020, de 18 de mayo, de la Directora General de Política de Empresa, Proyección Internacional y Trabajo, por la que se establece el calendario oficial de fiestas laborales para el año 2021 con carácter retribuido y no recuperable en el ámbito de la Comunidad Foral de Navarra.

Vista la Resolución 819/2020, de 24 de noviembre, de la Directora General de Política de Empresa, Proyección Internacional y Trabajo por la que se determina las fiestas locales para el año 2021 con carácter retribuido y no recuperable, en el ámbito de la Comunidad Foral de Navarra.

Visto el Decreto Foral 98/2020, de 22 de diciembre, por el que se declaran los días inhábiles en el ámbito de la Comunidad Foral de Navarra a efectos de cómputo de plazos para el año 2021.

Vista la propuesta realizada por los representantes sindicales del Ayuntamiento.



Udalbatzak aho batez honako akordioa onartu du:

1.- Onestea Baztango Udalaren zerbitzuko langileen 2021. urteko jaiegunen egutegia, igandeez gain honako hau izanen delarik:

Urtarrilak 1 eta 6; martxoak 19; apirilak 1, 2 eta 5; maiatzak 1; uztailak 24 (12:00etatik aurrera); uztailak 26, 27 eta 28; urriak 12 eta 29 (Baztango besta eguna), azaroak 1; abenduak 3, 6, 8 eta 25.

Abenduaren 24an eta 31n lan-ordutegia bi ordu murriztuko da eta bi egunetako lanaldia 13:00etan amaituko da.

Astelehenetik ortzirralera bitarteko **eguneroko lanaldia** orokorrean 7 ordu eta 30 minutukoa izanen da. Ordutegiaren zati finkoa eta beraz nahitaez bertan egotekoa 9:00etatik 15:00etara izanen da; gainerako ordutegia langileek aukeratuko dute, malgutasunez, 7:30etik 9:00etara eta 15:00etatik 16:30era.

Langileek bete beharreko gehieneko ordu kopurua (1592) koadratzearen ordu-poltsa izanen dute familia eta lana bateratzeko edota norberaren aferetarako; gehiegizko lan-orduen ondorioz sortutakoa. 2021erako onetsi den lan egutegiaren arabera 45 ordu izango dira. Ordu hauek ezingo zaizkie opor egunei gehitu.

2.- Adieraztea orobat baliogabeak izanen direla 2021. urtean epeak kontatzeari dagokionez, larunbat eta igande guztiak eta udal bulegoetako jaiegunak. Baztango Udaleko Erregistro Orokorra 9:00etatik 14:00ak arte egonen da irekita, jendea hartzeko, astelehenetik ortzirralera, lanegunetan, ondoko salbuespenekin: abenduaren 24an eta 31n 9:00etatik 13:00etara izanen da.

4.- 2021eko URTARRILAREN 4an BATZAR NAGUSIAK EGINDAKO OHIKO BILKURAN HARTUTAKO ERABAKIA.

Jakinarazten da Batzar Nagusiak 2021eko urtarrilaren 4an izandako bileran hartutako 11.5 akordioa. CARLOS BERISTAIN BERAUK aurkeztutako idatzia (FCO. JOAQUIN IRIARTE ZAHAR ETXEKO LANGILE BATZORDEA, ELKARTASUN SAREA, PENSIONISTEN SAREA). Bertan aldeko 22 botorekin eta 5 abstentziorekin onartu zen:

El Pleno aprueba por unanimidad el siguiente acuerdo:

1.- Aprobar el calendario de días festivos durante el año 2021 para el personal al servicio del Ayuntamiento de Baztan, que además de los domingos, será el siguiente:

1 y 6 de enero; 19 de marzo; 1, 2 y 5 de abril; 1 de mayo; 24 de julio (festivo desde las 12:00 horas), 26, 27 y 28 de julio; 12 y 29 de octubre (fiesta local del Valle de Baztan); 1 de noviembre; 3, 6, 8 y 25 de diciembre.

El 24 y 31 de diciembre se reducirá el horario de trabajo dos horas respectivamente, finalizando la jornada de ambos días a las 13:00 horas.


La jornada diaria de trabajo de lunes a viernes tendrá, con carácter general una duración de 7 horas y 30 minutos. La parte fija del horario, que será de presencia obligatoria en el puesto de trabajo, estará comprendida entre las 9:00 a 15:00 horas, quedando el tiempo restante para su realización, a elección de la/del empleada/o y con carácter flexible, entre las 7:30 y las 9:00 horas y entre las 15:00 y las 16:30 horas.

Con objeto de cuadrar el número máximo de horas (1592) el personal dispondrá a efectos de conciliación familiar y/o asuntos propios, de una bolsa de horas generada por el exceso del tiempo trabajado, que del calendario de trabajo para el año 2021 aprobado resulta de 45 horas, cuyo disfrute no podrá realizarse en conjunción con días de vacaciones.

2.- Declarar inhábiles a efectos del cómputo de plazos en el año 2021, todos los sábados y domingos y los días declarados festivos para las Oficinas Municipales. El horario de atención al público y de apertura del Registro General del Ayuntamiento de Baztan queda establecido de lunes a viernes, en días laborables, de 9:00 a 14:00 horas, excepto los días el 24 y 31 de diciembre, que será de 9:00 a 13:00 horas.

4.- ACUERDO ADOPTADO POR LA JUNTA GENERAL EN SESIÓN ORDINARIA DE 4 DE ENERO DE 2021.

Se informa sobre el acuerdo nº 11.5 adoptado por la Junta General de 4 de enero de 2021. Escrito presentado por CARLOS BERISTAIN BERAU (TRABAJADORES DE LA RESIDENCIA FCO. JOAQUIN IRIARTE, ELKARTASUN SAREA Y PENSIONISTAS). En el mismo por 22 votos a favor y 5 abstenciones se acordó:



1.- Batzar Nagusiak Udalari eskatzea Zahar-Etxeko Patronatuaren estatutuak berritzeko prozesua lehenbailehen has dezala.

2.- Behin Estatutuen aldaketa proposamena zehaztuta, Herrietako Batzarretan aurkeztu dadila, bozkatzeko.

3.- Ondotik Patronatuaren Estatutu berrien proposamena Batzar Nagusian bozkatu dadila.

4.- Batzar Nagusiaren oniritzia jaso ondoren, Udaleko Osoko bilkuran aurkeztea, onarpena berresteko.

Udalbatza jakitun geratu da.

5.- ALKATETZAREN 3/2021 EBAZPENA, ALKATEAREN EGINKIZUNAK ESKUORDETZEKO.

Alkateak 3/2021 Ebazpenaren edukiak azaldu ditu, alkatearen eginkizunen delegazioari buruzkoa eta Udalbatzak aho batez Ebazpena berretsi du.

6.- BERA, URRUÑA ETA BAZTANGO ALKATEEK AURKEZTUTAKO MOZIOA

Alkateak dio mozio hau, azkenean, Bera eta Baztango alkateen izenean aurkeztu dela.

Alkateak bilkura honen espedientean 6. puntu gisa agertzen den mozioa bozkatzera deitu du.

Udalbatzak aldeko 10 botorekin eta kontrako 3 botorekin mozioa **onartu du.**

7.- BAZTANGO GEROA BAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA. OPOKA ETA LEKAROSKO PRESAS.

Mozioaren testua ezagututa eta Udalbatzako kideek, aipatutako gaiaz beren iritzia eman ondoren, laburbilduz:

Joseba Moreno /Geroa Bai: Mozioa azaldu du.

Xabier Maia / EH-Bildu: Mozioa babestuko dute. 2017tik badaude zantzuak zonaldean. Barrideek kalteak aipatu izan dituzte eta nahiz eta lurak pribatuak izan udalera jo zuten. 2018an Udalak Konfederazioari txostena eskatu zion. Aldi berean Nafarroako Gobernuko Ingurugiroko Departamentuko txostena badago, kaltetu izan zen eremuari buruzkoa.

1.- *Que la Junta General requiera al Ayuntamiento para que inicien el proceso de modificación de los estatutos del Patronato de la Residencia de Ancianos.*

2.- *Que una vez que se detalle la propuesta de modificación de los estatutos, se vote ésta en los batzarres de los lugares.*

3.- *Que posteriormente la propuesta de modificación de estatutos se vote en la Junta General.*

4.- *Que una vez que se obtenga el visto bueno de la Junta General se remita al Pleno del Ayuntamiento para su aprobación.*

El Pleno se da por enterado.

5.- RESOLUCIÓN DEL ALCALDÍA 3/2021. DELEGACIÓN DE FUNCIONES DE ALCALDÍA.

El alcalde da a conocer el contenido de la Resolución de Alcaldía 3/2021, relativa a la delegación de funciones de Alcaldía, que el Pleno por unanimidad confirma.

6.- MOCIÓN PRESENTADA POR LOS ALCALDES DE BERA, URRUÑA Y BAZTAN.

El alcalde informe que la presente moción se presenta finalmente en nombre de los alcaldes de Bera y Baztan.

El alcalde llama a votar la aprobación de la moción, que consta como punto 6 en el expediente de la presente sesión.

El Pleno por 10 votos a favor y 3 en contra aprueba la moción.

7.- MOCIÓN PRESENTADA POR EL GRUPO GEROA BAI DE BAZTAN. PRESAS DE OPOKA Y LEKAROS.

Conocido el texto de la moción y exponiendo los corporativos, sobre el punto de referencia, sus opiniones al efecto recogidas brevemente:

Joseba Moreno / Geroa Bai: *Explica la moción.*

Xabier Maia / EH-Bildu: *Apoyarán la moción. Desde 2017 hay indicios en la zona. Los vecinos comentan los daños y aunque los terrenos son privados acudieron al ayuntamiento. En 2018 el Ayuntamiento solicitó informe a la Confederación. Al mismo tiempo existe un informe del Departamento de Medio Ambiente del Gobierno de Navarra sobre la zona afectada.*

Ikusita aurten zer gertatu den Santiago karrrikako gibelesko aldean, adi egon dira, inguruko etxebizitzetan azterketak egin dira baita georadar azterketa bat eskatu ere. Lanean ari dira

Alkateak bilkura honen espedienteen 7. puntu gisa agertzen den mozioa bozkatzera deitu du.

Udalbatzak aho batez mozioa onartu du.

8.- BAZTANGO GEROA BAÍ TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA. ALOKAIKURUKO ETXEBIZITZEN SUSTAPEN PUBLIKORAKO LURZORUA.

Mozioaren testua ezagutua eta Udalbatzako kideek aipatutako gaiak beren iritzia eman ondoren, laburbilduz:

Rubén Ziganda / Geroa Bai: Udalak hainbat ekintza egin ditu: alokairuko etxebizitzetan interesa duten pertsonen zerrenda egin da, eta Nafarroako Gobernuak erabiltzen ez diren etxebizitzetara eta horiek lagatzeari buruz hartutako neurriekin bat egin da. Proposamen honek gaia osatu eta indartzen du. Beste landa-ingurune batzuetan ekimenak sortzen ari dira eta ez dute kanpoan geratu nahi.

Joseba Otondo / alkatea: Hurrengo testua irakurri du: "Geroa Baik Udalaren lurra Nafarroako Gobernuaren eskuetan uzteko eskatu du, alokairuko bizitegi publikoak egiteko, baina Geroa Baik ez du erraten lur hori nondik atera. Udalek, normalki, eraiki ahal izateko lur publikoa hirigintzako promozio pribatuetatik eskuratzen ahal dute, hirigintza proiektuaren %10etik hain zuzen. Baina urtetan, eta batez ere beroaldi inmobiliarioaren aldiak, nahiago izan zen %10 hori lurretan hartu beharrean sozetan hartu. Luzera, horrek ekarri duena da Udalarena den lurrik ez izatea promozio publikoak egin ahal izateko.

Alta, azkeneko urte gutti hauetan lur publikoa erdietsi ahal izateko, hirigintzako promozio guztietan dagokion %10 lurretan eskuratzeko erabakia hartu eta eginahalean ari da Baztango Udala. Horrela, udaleko gobernuaren eginahal horrek lehendabiziko aldiz, eraiki ahal izateko udalaren lurra edukitzea ekarri du.

A la vista de lo ocurrido este año en la parte trasera de la calle Santiago, se ha estado atento, se han realizado estudios en las viviendas cercanas y se ha solicitado un estudio de georadar. Se está trabajando en ello.

El alcalde llama a votar la aprobación de la moción, que consta como punto 7 en el expediente de la presente sesión.

El Pleno por unanimidad aprueba la moción.

8.- MOCIÓN PRESENTADA POR EL GRUPO GEROA BAI DE BAZTAN. SUELO PARA PROMOCIÓN PÚBLICA DE VIVIENDA DE ALQUILER.


Conocido el texto de la moción y exponiendo los corporativos, sobre el punto de referencia, sus opiniones al efecto recogidas brevemente:

Rubén Ziganda / Geroa Bai: Desde el Ayuntamiento se han llevado a cabo diferentes acciones: se ha realizado una lista de personas interesadas en viviendas de alquiler y también se ha realizado un acompañamiento a las medidas del Gobierno de Navarra sobre viviendas en desuso y su posible cesión. Esta propuesta complementa y refuerza el tema. En otros entornos rurales están surgiendo iniciativas y no quieren quedarse fuera.

Joseba Otondo / alcalde: Ha leído el siguiente texto: "Geroa Bai pide que se pongan los terrenos del Ayuntamiento en manos del Gobierno de Navarra para construir viviendas públicas de alquiler, pero Geroa Bai no dice de dónde sacar esa parcela.

Los Ayuntamientos, normalmente, pueden acceder a suelo público para su construcción a través de promociones urbanísticas privadas, que suponen el 10% del proyecto urbanístico. Pero durante años y sobre todo durante el periodo del boom inmobiliario, se prefirió tomar ese 10% en dinero en lugar de en terrenos. A la larga, lo que ha supuesto es que no haya ningún terreno que sea municipal para poder hacer promociones públicas.

El Ayuntamiento de Baztan ha tomado la decisión de adquirir el 10% de las promociones urbanísticas en terrenos para la obtención de suelo público en los últimos pocos años. Así, por primera vez, esta labor de gobierno municipal ha supuesto disponer de suelo municipal para su construcción.



[Handwritten signature]

Bistan da, Udala prest dago lur horiek Nafarroako Gobernuaren eskuetan uzteko, jabetzari uko egin gabe, alokairu sozialeko bizitegiak egiteko.

Baina horretan hasi baino lehen, komeniko litzateke Nafarroako Gobernuak bailaran dituen etxeak herritarren eskura paratzea. Horrela, Oronozeko bidezainen etxeak gobernuarenak izaki, gehienak hutsik daude. Hortaz, gehiago eraiki behar izan gabe, bizitegiak alokairuan emateko non aritu badu.

Horren haritik aipagarria da, Baztango Udalaren ekimenez bidezainen etxe bat herrituko duela gobernuak, eta, gaurgero obra baimenaren eskaera udaletxean sartu duela.

Modu berean, aipagarria da aitzineko legealdian Iruritan dauden Sagueseko lurak gobernuaren eskuetan uzteko egindako eskaintza eta eman ziren pausu juridiko eta administratiboak. Lur horietan alokairuan emateko bizitegi publikoak egitea zen helburua. Gobernuak, nahi izanez gero badaki eskaintza zutik duela.

Bertzalde, Nafarroako Gobernuak alokairuko boltsa sortu zuelarik Baztango Udalaren ekimenez boltsa horren zerbitzua Iruñerriaz kanpoko herritarrei emateko lehendabiziko lankidetz hitzarmena Baztanekin egin zen; Baztango ekimenari erantzunez, hain zuzen.

Gainerakoan, Nafarroako Gobernuaren Estatistika Institutuak, Baztango Udalak eskaturik Baztanen 4.472 bizitegi daudela ikusi du. Horietatik 2.869 bizitegi nagusiak dira eta 1.603 bizitegi ez nagusiak, hau da, bigarren bizitegiak edo hutsik daudenak.

Berriki Nafarroako Gobernuak herrialdeko herri nagusietako etxe hutsei buruzko azterketa egin du. Elizondon, bizitegien ur-kontsumoa aztertuta 400 bizitegi hutsik egon zitezkeela ikusi zen. Ondotik, jabeekin harremanetan paratuta 64 bederen egiazki hutsik daudela baieztatu ahal izan da. Hortaz, bizitegiak alokairuan eman ahal izateko, eraikita dagoenean eta hutsik daudenetan eragin behar da.

Modu berean Cederna-Garalurren berezko proiektuetarako etxe hutsak alokairuan eman ahal izateko plataforma digitala egiteko proposamena egin du Baztango Udala.

Evidentemente, el Ayuntamiento está dispuesto a dejar esos terrenos en manos del Gobierno de Navarra, sin renunciar a la propiedad, para realizar alojamientos de alquiler social.

Pero antes de empezar a hacerlo, convendría poner a disposición de los ciudadanos las casas que el Gobierno de Navarra tiene en el valle. Como las casas de los camineros de Oronoz, que son propiedad del gobierno, y la mayoría están vacías. Por lo tanto, sin necesidad de construir más, ya hay por dónde empezar con las viviendas en alquiler.

En este sentido, cabe destacar que, a iniciativa del Ayuntamiento de Baztan, el Gobierno va a proceder a la renovación de una casa de camineros, y que ya ha presentado en el Ayuntamiento la solicitud del permiso de obras.


Del mismo modo, es destacable el ofrecimiento realizado en la anterior legislatura para entregar al Gobierno las tierras de Sagués situadas en Irurita y los pasos jurídicos y administrativos que se dieron. El objetivo era la realización de alojamientos públicos para su alquiler en estos terrenos. El Gobierno, si quiere, sabe que tiene la oferta en pie.

Por otra parte, el primer convenio de colaboración para la prestación del servicio de la bolsa de alquiler creada por el Gobierno de Navarra se firmó con el Ayuntamiento de Baztan, en respuesta a la iniciativa de Baztan.

Por otra parte, el Instituto de Estadística del Gobierno de Navarra, a instancias del Ayuntamiento de Baztan, ha detectado la existencia de 4.472 viviendas en Baztan. De ellas, 2.869 son residenciales principales y 1.603 no residenciales principales, es decir, segundas viviendas o deshabitadas.

Recientemente el Gobierno de Navarra ha realizado un estudio sobre las casas vacías de las principales localidades de la provincia. En Elizondo, analizando el consumo de agua de las viviendas detectó la posibilidad de que hubiera 400 viviendas vacías. A continuación, contactando con los propietarios, se ha podido confirmar que al menos 64 están vacías. Por lo tanto, para que las viviendas se puedan dar en alquiler hay que incidir en lo que está construido y en lo que está vacío.

El Ayuntamiento de Baztan propone la creación de una plataforma digital para que las viviendas vacías puedan ser cedidas en alquiler para proyectos propios de Cederna-Garalur.



Alokairuko bizitegi sozialetarako lehenengo pausua eraikita dagoen parke hutsa erabiltzea da. Horren osagarri gisa berriak egitea, sustapen publikoaren bidez. Guzti horretan bidelagun izanen gaitu Gobernuak. Eta azkeneko urteetan etxeko lanak egin ditugunez, eraikitzeko lur hori edukitzen ahal dugu.”

Alkateak bilkura honen espedientean 8. puntu gisa agertzen den mozioa bozkatzera deitu du.

Udalbatzak aho batez mozioa **onartu du**.

GALDE-ESKEAK

Ez da izan.

Jarraian, alkate-udalburu jaunak bilkura amaitutzat eman du 19:16an. Idazkari gisa, horren guztiaren fede ematen dut.

El primer paso para las viviendas sociales en alquiler es utilizar el parque vacío que está construido. Complementarlo con la creación de nuevas a través de la promoción pública. En todo ello el Gobierno nos tendrá a su lado. Y como en los últimos años hemos hecho los deberes, podemos tener ese suelo para construir.”

El alcalde llama a votar la aprobación de la moción, que consta como punto 8 en el expediente de la presente sesión.



El Pleno por unanimidad aprueba la moción.

RUEGOS Y PREGUNTAS

No se dan.

Seguidamente, por el Sr. alcalde se levanta la sesión, siendo las 19:16 horas, de todo lo cual, como secretario doy fe.

ALKATEA
EL ALCALDE



IDAZKARIA
EL SECRETARIO





Pirinio Atlantikoetako prefetak Nafarroa Garaiaren eta Nafarroa Beherearen eta Lapurdiren arteko bederatzi muga-pasabide hetsi ditu, horren arrazoia izanik "Terrorismoaren aurkako borroka".

Egun batetik bertzera egunerokoa mugaz gaindi egiten duten herritarrek beren harat-honata gogorki baldintzaturik ikusi dute, bai lan-arloan, bizitza sozialean, zerbitzuen eskurapenean e.a.

Aitzinetik ere horrelakoak bizi izan ditugu, iazko lehenengo konfinamendu-aldian edo Miarritzeko G7aren biltzarra zela eta.

Estatuen gainetik eguneroko bizitza egiteko lurralde eremu historikoa hedatzen da mugaren bi aldeetatik, herritarrek ohiko bizimoduarekin eraiki dutena elkarbanatzen duten kulturaren bidez, espazio sozial bizia sortuz, Madriletik eta Parisetik urrun.


Horregatik, gure lurraldearen barneko bizitza baldintzatu eta gelditzeko Frantziako eta Espainiako estatuak duten ahalmena salagarria da eta horretan gehiegikeriaz eta bidegabeki ibiltzea ere bai, azkeneko aldian ikusten ari garen bezala.

Halaber, horrelako erabakiak kinka larrian uzten dituzte Europan asmatutako euro eskualdeak. Gure kasuan Akitania, Euskal Autonomi Elkartea eta Nafarroa. Paperean elkargunea baina errealitatean inolako eraginkortasunik gabe, horrelako erabakiak ekiditeko.

Horregatik, PROPOSATZEN DUGU:

- Muga-pasabideak hestea publikoki salatzea
- Pirinio Atlantikoetako prefetari eskatzea hetsitako mugako pasabideak lehenbailehen irekitzea.
- Euro eskualdeak indar egin dezan horrelako erabaki kaltegarriak ekiditeko.

Joseba Otondo Bikondoa, Baztango alkatea
Aitor Elexpuru, Berako alkatea



Baztanen, 2021eko urtarrilaren 21ean.




GEROABAI
BAZTAN

*Alkohol
Zabaitaria*

AL AYUNTAMIENTO DE BAZTAN

El Grupo de Geroa Bai propone la siguiente **MOCIÓN** para su debate y valoración en el **PLENO MUNICIPAL** enero de 2021:

INFORME TÉCNICO SOBRE LAS AFECCIONES DEL DERRIBO DE LA PRESA DE OPOKA DE ELIZONDO Y PRESA DE LEKAROZ
2021-01-20

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS:

Estos días hemos tenido conocimiento del hundimiento de un camión en el firme de la calle Santiago 82 trasera.

Los hundimientos del firme no se limitan a ese emplazamiento únicamente. Entre Casa Opoka y el 74 de la calle Santiago, entre los bloques 74 y 80, en la plazuela entre el 80 y 84 y entre el 84 y 90, todos ellos de la calle Santiago, hay hundimientos serios del firme.

Los hundimientos no se limitan a este lado del río, también se están dando en Braulio Iriarte, en la terraza de los números 27 y 29, y en los bajos del 31.

Es un asunto cuanto menos muy preocupante, y que no parecen casos aislados, sino una afección general de la zona.

En 2008 conforme al proyecto europeo Life, y su programa de permeabilización de obstáculos en los cauces de los ríos, se derribaron las presas de Lekaroz y Opoka. También se propuso derribar la presa de Txokoto, que finalmente no se llevó a cabo ya que Príncipe de Viana la declaró bien inventariado tras la solicitud vecinal, asegurando de esa manera su protección.

Con respecto a la presa de Opoka, el paso del tiempo y la modificación ocasionada en la circulación y el nivel de aguas en casos de crecida, creemos que ha podido causar diferentes erosiones que puedan estar dando pie a estos innumerables socavones. Hay una evidencia, y es que la tierra debajo de los firmes está desapareciendo.

A mediados del 2020 se realizó una escollera en la orilla del río, entre la casa Opoka y el 74 de la calle Santiago. A pesar de ello parece que los problemas continúan y no desaparecen en zonas cercanas.

Desde nuestro grupo municipal, durante el pasado pleno del 23 de agosto de 2019, preguntamos sobre las obras de la bóveda del puente de Opoka y sugerimos la elaboración de un informe técnico sobre el estado del puente, su estabilidad y seguridad y posibles causas de los daños observados y, en su caso, la exigencia de responsabilidades caso de que los daños fueran consecuencia o motivados por la demolición de la presa.

No se nos debe olvidar que es una zona de viviendas, con los riesgos y peligros para los vecinos de la zona.

Por todo ello, a pesar de haberlo solicitado durante el pleno mencionado, a fin de disponer de un buen análisis sobre las afecciones existentes en la zona, conocer el origen, y la posible exigencia de responsabilidades en caso de que las hubiera, y soluciones a las afecciones.

Siendo sí, y con la voluntad del AYUNTAMIENTO DE BAZTAN, el Grupo Municipal propone la siguiente.

PROPUESTA DE RESOLUCIÓN

-Solicitar la elaboración de un informe técnico que analice y valore la posible incidencia del derribo de las presas de Opoka y Lekaroz en la creación de los socavones descritos.

-Solicitar estudio de los daños afectados en la zona a ambas orillas del río y plan de soluciones.


Concejal de Geroa Bai Baiztan.







BAZTANGO UDALARI

GeroaBai taldeak honako MOZIO hau proposatzen du 2021eko urtarrileko udalbatzarrean eztabaidatu eta baloratzeko:

TXOSTEN TEKNIKOA ELIZONDOKO OPOKA PRESA ETA LEKAROZKO PRESEN ERAISTEEI BURUZKOA

2021-01-20

ZIOEN AZALPENA:

Egunotan jakin berri dugu kamioi bat hondoratu dela Santiago karrrikako 82. zenbakiko gibelego aldeko zoruari.

Zorua hondoratzeak ez dira leku horretan bakarrik gertatzen. Opoka etxearen eta Santiago karrrikako 74. zenbakiaren artean, 74. eta 80. blokeen artean, 80. eta 84. eta 90. plazatzoen artean, guztiak Santiago karrrikan, zoruaren hondoratze larriak daude.

Hondoratzeak ez dira ibaiaren alde horretara mugatzen, Braulio Iriarten ere gertatzen baitira, 27 eta 29 zenbakietako terrazan eta 31ko etxabeetan.

Arras kontu kezkarria da, eta ez du ematen kasu bakarrak diren, gehiago baita eremu osoaren kontua.

2008an, Europako Life proiektuak biltzen duen ibaietako ubideen trabak arintzeko programaren arabera, Lekarozko eta Opokako presak kendu ziren. Txokotoko presa botatzea ere proposatu zen, baina azkenean ez zen inolakorik gertatu, Vianako Printzea erakundeak ondasun inbentariatu deklaratu baitzuen, tokiko barrideek hala eskaturik. Horrek eman zion babesia.

Opokako presari dagokionez, badugu uste denboraren joanak eta ur-goraldiaren zirkulazioan eta ur-mailan gertatu diren aldaketek hainbortze higadura mota sortu duten. Higadura horiek izaten ahal dira, azkenekoz, aunitz zulo sortzearen arrazoi. Bada proga argi bat, zorupeko lurra desagertzen ari baita.

2020. urtearen erdialdean harri babes bat egin zen ibai bazterrean, Opoka etxearen eta Santiago karrrikako 74. zenbakiaren artean. Zernahi gisan, iduri du arazoek bere horretan segitzen dutela eta ez direla inguruan ere konpontzen.

Gure udal-taldetik 2019ko abuztuaren 23ko osoko bilkuran galdegin genuen



Opokako zubi sabaiaren obren gainean, eta iradoki genuen komeniko litzatekeela txosten bat egitea zubiaren egoeraz, egonkortasunaz eta segurtasunaz. Eta hala bazegokion, erantzukizunak eskatzea ere, kalte horiek presa eraistearen ondoren edo ondorioz gertatu baziren.

Ez dugu atzendu behar hori guzia etxebizitzaren eremua dela, inguruko bizilagunen arriskuak dituen.

Horregatik guziagatik, aipatutako osoko bilkuran eskatu bagenuen ere, zonaldean dauden afekzioei buruzko azterketa on bat egitea eskatzen dugu, kalteen jatorria zein den jakiteko eta, halakorik balego, erantzukizunak eskatzeko, eta konponbideak bilatzeko.

Hala izanik, eta Baztango Udalaren borondatearekin, Udal Taldeak hurrengo proposatzen du.

EBAZPEN-PROPOSAMENA

- Txosten tekniko bat egitea, Opoka eta Lekarozko presen eraisteak deskribatutako zuloen agertzean izan dezakeen eragina aztertu eta baloratuko duena.
- Ibaiaren bi bazterretako eremuetan eragindako kalteak zehaztuko dituen txosten bat egitea eta konponbideen plana eskatzea.

Geroa Bai Baztango zinegotzia.



Alkatece
Zdezkaria

8

AL AYUNTAMIENTO DE BAZTAN

El Grupo de Geroa Bai propone la siguiente **MOCIÓN** para su debate y valoración en el **PLENO MUNICIPAL** enero de 2021:

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El derecho de toda la ciudadanía a acceder a una vivienda digna y asequible y la voluntad política de priorizar la función social de la vivienda frente a su valor de cambio o inversión se ha convertido, actualmente, en el epicentro y como una cuestión fundamental de las políticas públicas de vivienda. Así quedó recogido, además, en la Ley Foral 28/2018, de 26 de diciembre, sobre el derecho subjetivo a la vivienda en Navarra.

Asimismo, durante los últimos años ha aumentado exponencialmente la demanda de vivienda en régimen de alquiler frente a la compraventa, fundamentalmente por parte de personas jóvenes o familias con ingresos escasos, y siendo conscientes de que el parque público de vivienda resulta, hoy por hoy, insuficiente para responder a estas necesidades, se hace necesario redoblar los esfuerzos por parte de las administraciones públicas -también de las entidades locales- para aumentar la oferta de vivienda de alquiler asequible.

Ante esta situación, el Gobierno de Navarra ha activado, en los últimos cinco años, distintas herramientas de promoción de vivienda de alquiler asequible como la puesta en marcha del plan de promoción pública 'Navarra Social Housing', con más de 500 viviendas, o el alquiler de viviendas en desuso cedidas por particulares al programa de la Bolsa de Alquiler que gestiona la sociedad pública de Vivienda, actualmente con más de 700 viviendas.

En posteriores fases de estos planes, el Gobierno de Navarra se ha propuesto extender estas políticas, más allá de la Comarca de Pamplona/Iruñerria, al conjunto del territorio de la Comunidad Foral, a sus distintas comarcas y al ámbito rural para que política de vivienda y la oferta de vivienda de alquiler permita dar respuesta a la demanda en distintas zonas de Navarra, se convierta también en un factor de equilibrio territorial y sea una herramienta más en el objetivo compartido de paliar el éxodo poblacional o el fenómeno de despoblación en determinadas localidades.

Siendo sí, y con la voluntad de que el AYUNTAMIENTO DE BAZTAN también pueda contribuir a desarrollar estas políticas y a dar respuesta a la demanda de vivienda existente entre de sus propios vecinos y vecinas, el Grupo Municipal propone la siguiente

PROPUESTA DE RESOLUCIÓN

El Pleno Municipal insta al AYUNTAMIENTO DE BAZTAN a:

1. Iniciar los trámites jurídicos y administrativos que sean necesarios con el objeto de poder poner suelo de uso residencial o dotacional de titularidad municipal [o bien una parcela concreta, identificando cuál] a disposición del Gobierno de Navarra en régimen de cesión de uso, siempre y cuando vaya destinado a la promoción pública de vivienda de alquiler para responder a la demanda de la ciudadanía local.

Elizondo, a 20 de enero de 2021







BAZTANGO UDALARI

☑Geroa Bairen taldeak honako mozio hau proposatu du 2021eko urtarrileko udalbatzarrean eztabaidatu eta baloratzeko:

☑ZIOËN AZALPENA

☑Herritar guziek dute eskubidea etxebizitza duin eta eskuragarria izateko. Borondate politikoak lehenasuna ematen dio etxebizitzak duen funtzio sozialari, ezaugarri hori etxeek duten inbertsio balioaren gainetik paratuz. Hori bihurtu da gaur egun etxebizitza politika publikoen gune eta kezka nagusi.

Hala dago bildua, gainera, abenduaren 26ko 28/2018 Foru Legean, zeina arduratzen baita Nafarroan etxebizitza izateko eskubide subjektiboaz.

☑Aldi berean, azken urteotan, salerosketaren eskariaren parean, esponentzialki biderkatu da alokairu-erregimeneko etxebizitzaren eskaria. Bereziki gazteek edo diru-sarrera gutiko familiek eskatzen dute hori. Ongi ohartzen gara etxebizitza publikoaren eskaintza, gaur egun, ez dela, behar horiei erantzuteko, nahikoa. Horregatik, beharrezkoa da administrazio publikoek – baita tokiko erakundeek ere – arrazoizko alokairuko etxebizitzaren eskaintza handitzeko egin ahalak handitzea.

☑Egoera hori dela eta, Nafarroako Gobernuak, azken bortz urteotan, arrazoizko alokairuko etxebizitzak sustatzeko politika tresnak abiarazi ditu. Hala nola, 'Navarra Social Housing' sustapen publikoko plana paratu du abian, 500 etxebizitza baino gehiagorekin. Bertze 700 etxebizitza baino gehiago daude Alokairu Burtsaren programari lotuak: programa hori Etxebizitza Sozietate Publikoak kudeatzen du, eta partikularrek hutsik dituzten etxeak uzten dituzte programa horren esku, alokatuak ahal izateko.

☑Plan horien ondorengo faseetan, Nafarroako Gobernuaren asmoa da politika horiek Iruñerriatik haratago hedatzea Foru Komunitateko lurralde osora, eskualde



guzietara eta landa-eremura. Etxebizitza-politikak eta alokairuko etxebizitzaren eskaintzak aukera eman diezaion Nafarroako eremuetako eskariari behar bezala erantzuteko, lurralde-orekako faktore bihur dadin eta helburu partekatu hauetan bertze tresna bat izan dadin. Zenbait tokitako biztanleriaren exodo eta jendegabetzeari konponbidea eman behar zaio.

Gauzak hola direlarik, eta nola nahi dugun Baztango Udalak ere holako politikak garatzea eta herritarrek etxebizitzaren gainean duten arazoa arintzea, Udal Taldeak honako proposamen hau egiten du:

EBAZPEN-PROPOSAMENA

Udalbatzak Baztango Udalari hau eskatzen dio:

1. Tokiko herritarren eskariari erantzuna eman ahal izateko, beharrezkoak diren izapide juridikoak eta administratiboak has ditzan, bizitegi-erabilerako edo zuzkidura-erabilerako lurzorua [edo lurzati jakin bat, ongi zehaztua] Nafarroako Gobernuaren esku jartzeko, betiere alokairuko etxebizitzaren sustapen publikorako bada. [] []

GeroaBaiBaztango zinegotzia.

Elizondo, 2021eko urtarrilaren 20a

